

## **Fracking EZ! Ez hemen, ez inon!**

Frackinga edo haustura hidraulikoa ez ohiko gas naturala ateratzeko erabiltzen den teknika da. Lurrazpiko putzu horizontal eta bertikalak zulatzean datza. Lurrazpiko harkaitza zulatu eta metanoa ateratzeko ur, hondar eta sustantzia kimiko toxiko eta kaltegarri kantitate izugarriak injektatu behar dira. Beharrezkoa izaten da lurrazalean zulaketa asko egitea. Plataforma bakoitzak okupatzen duen azalera 2 hektarea ingurukoa izaten da.

Lehergai kargak erabiltzen dira hodia zulatzeko eta presio handiz ura injektatzen da beste gehigarri batzuekin batera (zulaketa bakoitzean 200.000m<sup>3</sup> ur behar dira). Ohiko gehigarria bat hondarra izaten da, baina beste 500 sustantzia ere erabiltzen dira, hauen artean uretako izakientzat toxikoak diren 17 sustantzia, 38 toxiko larri, frogatutako 8 sustantzia kantzerigeno, 7 elementu mutageniko, etab. (azidoak, antioxidanteak, biozidak, bentzenoa,...) Haustura fluidoaren osagaiak neurri handi batean ezezagunak dira, sekretu enpresarial bat delako eta herrialde askotan ingurumen legeditik kanpo daudelako.

### **2. Frackingaren ondorioak ingurumenean eta pertsonen osasunean**


Frackingak ondorioak ditu ingurumenean eta pertsonen osasunean. Zulaketa berezia izanik, ohikoak baino arrisku gehiago ditu: leherketa arriskua, gas isuriak, toxikoen isuriak eta hodia zulatzerakoan behera etortzea. Arrisku larrienetakoa haustura fluidoarekin eta gasarekin akuiferoak kutsatzean datza. Elementu hauetako asko atmosferara igortzen dira. Ez ohiko gasak, ikatzarekin alderatuz, %30 eta %100 bitarteko berotegi efektuko gasen emisio hazkundera suposatzen du. Frackinga garatua dagoen zonaldeetan sismikotasunak (lurrikarak) gora egiten du. Kamioien joan etorri ugariengatik kutsadura akustikoa, errepideko segurtasun falta eta berotegi efektuko gasen emisioak eragingo dira. Plataformen kontzentrazio hauen inpaktu bisuala izugarria da. Gainera teknika honek lur mugimendu handiak, habitataren suntsitzea eta lodo toxikoentzat balsak eraikitzea dakar.

Frogatutako ingurumen arrisku hauetaz gain, minbizia, arnasketa arazoak, garunean kalteak, nahasmen neurologikoak eta hipersentiberatasun kimiko kasuak agertu dira, batez ere, uraren eta airearen kutsaduraren ondorioz. Osasun arrisku hauek esplotazioen inguruan bizi direnei eragiten die, eta baita bertako langileei ere.

#### 4. Frackinga Hego Euskal Herrian

Fracking bidez Araban ez ohiko gasa ateratzea 2011n egin zen publiko. Momentu horretan pertsona talde bat mobilizatu eta frackingaren aurkako plataforma bat osatu zen Araban. Denborarekin sindikatuak, ELA barne, alderdi politikoak eta eragile sozial ezberdinak gehitu ginen borroka honetara. Plataformek atsedetik gabe lan egin dute frackingaren mehatxua beteko balitz jasan ditzakegun arriskuez informatuz.

Urte hauetan ikerketa mailan sondeoak egiteko baimen eskaerak Hego Euskal Herri osora zabaldu dira. Arazoa Bizkaian eta Gipuzkoan hain ezaguna ez den arren, herrialde hauetan ere frackingaren mehatxua badago, mapa honetan ikusi daitekeen bezala:



Hego Euskal Herrian egungo egoera oso ezberdina da lurraldearen arabera. Nafarroan debekua onartu zen parlamentuan oposizioaren eskariz, baina gobernuaren ordezkariak Konstituzionalean helegitea jarri du debekua ekiditeko. EAEn ere debekua aurrera ateratzeko saiakera egiten ari gara Euskal Legebiltzarrean Herri Ekimen Legegilea aurkeztuz, non tramitera onartua izan den.

**30.000 sinadura jaso behar dira eta ziur gaude lortuko dugula. ELAko lokaletan sinadura bilketa egiten ari gara, beraz, sinatu!**

